

# BAT

## HITZAURRE GISA

Asier Basurto

Soziolinguistika Klusterra

Helbide elektronikoa: [asier@soziolinguistika.org](mailto:asier@soziolinguistika.org)

**E**sku artean duzun BAT aldizkariaren ale honek, soziolinguistikan interesa duenarentzat begi-bistan izan beharreko artikulua mamitsuak biltzen ditu bere baitan. Alde batetik, “*Zein hizkuntza hitz egiten du komunikazio gizarateak?*” ikastaroan landutakoen berri ematen da. Komunikazioaren eremuan ematen ari den eraldaketak euskararen osasuna eta etorkizunari ekartzen dienaz mintzo dira atal honetako idatziak. Beste alde batetik, berriz, lurralde antolaketaren ondorio soziolinguistikoek, blog-en irakaskuntzarako erabilgarritasunaz eta, BAT 71.ari jarraituz, Txillardegiri eskainitako azken artikulua bat jasotzen dira.

Hau da, hain zuzen ere, aldizkariko lehenengoa. Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluko **Iñaki Lasak** maitasun eta esker onezko hitzak zuzentzen dizkio euskal soziolinguistikaren bidegile donostiarrari. Aldizkariaren aurreko aleko lanak borobiltzeko, Txillardegiren soziolinguistika matematikoaren garrantzia azpimarratu eta teoria honen arabera aztertzen ditu euskararen gaurko egoera eta erronkak.

*Zein hizkuntza hitz egiten du komunikazio gizarateak?* ikastaroan oinarrituak dira, hurrengo hiru artikuluek. Joan bitez, lerro hauen bitartez, gure eskerrik beroenak, Soziolinguistika Klusterraren izenean, Euskal Herriko Unibertsitateko Uda Ikastaroaren antolatzaileengana eta bereziki, Juanito Etxeberriarengana, ikastaroaren antolaketan emandako laguntzagatik.

Aldaketa garaia bizi dugu. Mundu mailan gizakion artean harremanak izateko moduak eta bideak aldatzen ari dira. Lurralde, kultura, ohitura, izaera, pentsaera eta bizipen ezberdinez osatutako pertsonak elkarrekin komunikatzeko bideak gero eta gehiago dira eta inoiz baino esku-agarriago dauzkagu. Hizkuntzek funtsezko papera jokatzen dute gaur egun, orain arte bezala, komunikazio horien baitan. Baina nola aldatzen

da paper hori komunikazioaren baldintzak aldatzen diren heinean?

Testuinguru berri honen ezaugarriak ezagutzea ezinbestekoa zaigu bertan hizkuntza jakin batean bizi eta hizkuntza hori sustatu nahi dugunon ikuspuntutik. Ba al da lekurik hizkuntza gutxituentzat komunikazio globalean? Zein jarrera hartzea komeni zaigu hizkuntza gutxituen hiztun komunitateoi? Zein aukera irekitzen dizkigu aro berriak?


Asko dira aldaketak sortzen dituen zalantzak; eta aldi berean, anitzak dira gaiaren dimentsioak. 2009ko ekainean Donostiako Miramar Jauregian burututako ikastaroan zalantza hauek guztiak planteatu eta iturri ezberdinetatik edaten duten adituek azaldukoaren gainean eztabaidatzeko aukera izan zen.

Aldizkari honetan komunikazio moldeen eragin soziolinguistikoei buruz topatuko duzun lehen artikulua **Aitor Zuberogoiariena** da. Bertan, globalizazioaren fenomenoaren deskribapen argi bat burutzen du eta euskal komunitateak, historian, beste aldaketa batzuen aurrean hartutako jarrerak errepasatzen ditu kokapen modura. Hortik abiatuta, Euskal Herria eta mundu mailako komunikabideen panorama aztertzea sartzen da. Eta azkenik, biziraupenerako eta arrakastarako gako batzuk seinalatu borobiltzen du artikulua.

Hedabideek nortasunaren eraikuntzan jokatzeko paperari buruzkoa da hurrengoa. **Josu Amezaga** soziologoak, nortasuna eta kultura kontzeptuak argitu eta sarri eman ohi diren nahasketak ekidinez abiatzen du bere idatzia. Pertsonen identitateak osatzeko bidez dihardu, jarraian, gaiaren inguruko kontzeptu nagusiak eta ezinbesteko autoreen teoriez zertzelada batzuk emanaz. Jarraian identitateak osatzeko modu hauek globalizazioan hartzen duten formaren zenbait ezaugarri ematen ditu. Eta azkenik, masa komunikabideek, orokorrean, eta gaur egun agertu diren molde berriek talde nortasunaren eraikuntzan jokatzeko duten paperean zentratzen da.

Miramar Jauregian burututako ikastaroari buruzko azken testuan, ikastaroa bera borobildu zuen mahai-inguruan esandakoak biltzen dira. Hiru soziologoren arteko elkarrizketan bata bestearen atzetik jaso ziren pasarte mamitsuak. **Igor Calzada** (ikerlaria eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Koordinaziorako Zuzendaria) **Josu Amezaga** (soziologian doktorea eta EHUko irakaslea) eta **Jon Sarasua** (soziologoa, kazetaritzan doktorea eta Mondragon Unibertsitateko irakaslea) izan ziren gaur egungo mundu mailako testuinguruan hizkuntza gutxituetako hiztunen identitateaz jardun zutenak. Euskaldunok testuinguru berri honen aurrean hartu beharreko jarreraz eta komunikazio moldeetan bezala nortasunen eraketan eman diren aldaketez hitz egin zuten, besteak beste.

Uda ikastaroan landutakoak alde batera utziz, *Gurean* atalean, **Roberto Manjónen** artikulua bat da hurrengoa. Biziki gai interesgarrian murgiltzen da, soziolinguistikaren arloan gehiegi landu gabeko eremuan. Azpiegitura handiek dituzten eragin soziolinguistikoei arreta jarri beharra defendatzen du. Azpiegitura hauek planifikatzean, plangintza hori aurrera eramateak gizarte ereduaren eraketan efektu zuzenak dituela nabarmentzen du. Honela, euskararen bilakaera soziolinguistikoaz ari



garenean, ere, lurralde antolaketa mailako erabakien ondorioak kontuan hartu beharrekoak direla dio, hizkuntzaren gaiaz haratago doan hausnarketa saioan.

Azkenik, guztiz bestelako gai bati heltzen dio azken artikulua. **Iraia Saenzek** blogek euskararen irakaskuntzan izan dezaketen erabilgarritasunaz eta hauek eskaintzen dituzten onurez dihardu. Ikasleak motibatu, jarrera aktiboa bultzatu eta irakaslearekiko gertuko harremana sustatzeko balio dutelako, ikas-prozesuaren maila guztietan erabilgarri eta onuragarri direla da bere ondorio nagusia.

Ezbairik gabe, eduki berritzaile eta interesgarritz osatua dago, oraingoan ere, BAT soziolinguistika aldizkariaren ale hau. Huetatik ikasi eta hausnarketarako oinarritzat balioko dizutelakoan hurrengo orrialdeetan barneratzera gonbidatzen zaitut, irakurle.■